

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2024ko APIRILAREN 26an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2024ko apirilaren 26an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 12:00 orduetan, Maria Pilar Cortajarena Sorarrain Alkate ordearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Vicente Garcia Momblona  
Jose Agustin Arrieta Eguiguren  
Maria Isabel Vaquero Montero

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Ander Iturri Torrea eta Maite Arana Perez.


Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2024ko martxoaren 22an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 22 de marzo de 2024.**
  - **2024ko apirilaren 11an egindako ez ohiko bilkura/ Sesión extraordinaria de fecha 11 de abril de 2024.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Tolosaldeko Komunikazio Taldeak eginiko 2024 urteari dagokion diru-laguntza eskaera./ Solicitud de subvención de Tolosaldeko Komunikazio Taldeak correspondiente al año 2024.**
- 5. A.I.R. andreak, Aiztondoko eralezain elkartearen izenean eginiko eskaera./ Solicitud realizada por Dña. A.I.R. en representación de la Asociación de Apicultores de Aiztondo.**
- 6. Tolosaldea Garatzen-i 2024 urteko ekarpena burutzeko onespena ematea./ Aprobar el pago de la aportación correspondiente al ejercicio 2024 a Tolosaldea Garatzen.**
- 7. Beste batzuk/Otros.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

..//...



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- ▣ 2024 urteko martxoaren 22an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak, aho batez, onesten du.
- ▣ 2024 urteko apirilaren 11an egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak, aho batez, onesten du.

### **BIGARRENGO PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2024 urteko 14/2024tik 21/2024ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TEK LARRAUL	19,15
MAITE ARRESE	285,00
TEK LARRAUL	86,84
TEK LARRAUL	9,05
TEL LARRAUL	23,85
PUERTAS METALICAS LEZO	54,45
UDANE ALCALDE	112,50
ORONA	468,12
IZFE	1.928,62
FERRETERIA GOROSTIDI	27,40
RADIO TAXI DONOSTIA	43,92
NORTEGAS	105,05
NORTEGAS	354,89
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.252,14
TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA	133,10
ALKAIN	83,39
TAXI-JUAN IGNACIO	47,20
IKASGROUP	179,83
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	70,13
GILBE	415,05
MAQUELSA	39,47
ELECTROMECHANICAS ELIZETXEA	36,30
KIROLZER	51,85
ZU ETA BLOK	1.528,48
EBA ERKIZIA	1.698,76



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GUREAK MARKETING	8,98
SECURITAS DIRECT	55,04
SECURITAS DIRECT	54,39
GRENKE	214,17
TEK LARRAUL	178,17
TEK LARRAUL	47,88
TEK LARRAUL	196,63
TEK LARRAUL	62,74
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	5.218,72
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.281,71
TELEFONICA	75,40
TELEFONICA	10,41
TELEFONICA	83,49
TELEFONICA	121,00
TELEFONICA	385,33
OSK	133,10
IÑAKI ESNAL	375,00
PREMANK	1.453,62
ARRATE ITURBE	2.073,78

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **24.084,10** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

### **TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEAK EGINIKO 2024 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ESKAERA**


Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldeak eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik, Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aurkezturiko lankidetzahitzarmena 2024 urterako, Larraulgo Udalak goran aipaturiko diru-laguntza eman dezan.

Ikusirik, 2024 urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.02 partidari, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 750 euroko diru-laguntza bat emateko diru kopurua aurreikusten dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 750,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari aurkezturiko lankidetzaz hitzarmena onartzea 2024 ekitaldirako, Alkatea hitzarmena sinatzeko ahalmentzen delarik.

HIRUGARRENA: 750 eurotako gastua onestea, 2024 urteko aurrekontu orokorreko 422.334.00.02 partidaren kargura.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari ematea.

### **BOSTGARRENGO PUNTUA**

#### **A.I.R. ANDREAK, AIZTONDOKO ERLEZAIN ELKARTEAREN IZENEAN EGINIKO ESKAERA**

Ikusita, A.I.R. andreak, Aiztondoko erlezain elkartearen izenean eginiko eskaera, non liztor asiarren aurkako borrokan, herrian jarri behar dituzten tranpetarako behar dituzten materialak eskuratzeko laguntza eskaera egiten duen. 173,92 eurotako ordainketa bat aurkezten duelarik.

Ikusita, 2024 urterako udal aurrekontuetako 210.419.10.01 kontu sailean 500 eurotako diru-kopurua dagoela horrelako beharrei aurre egiteko.

Gaia aztertutik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: A.I.R. andreak 173,92 eurotako ekarpen bat egitea, liztor asiarren aurkako borrokan, herrian zehar jarri behar dituen tranpetarako materiala erosteko.

BIGARRENA: 173,92 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 2024 urterako 210.419.10.01 kontu sailaren kontura.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **TOLOSALDEA GARATZEN-I 2024 URTEKO EKARPENA BURUTZEKO ONESPENA EMATEA**

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2023ko abenduak 18ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2024 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 6.159,00 euro direlarik.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Tolosaldea Garatzen-i, 2024 urteko ekarpena onestea, guztia 6.159,00 euro direlarik. Lehen ekarpena burutzea onesten da, hau da, 3.089,50 eurotako diru kopurua.

**BIGARRENA:** 6.159,00 eurotako gastua onestea, ordainketak 2024 urteko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 kontu sailaren kargura egingo direlarik.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **HEMEZORTZIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, goizeko 12:20 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.